



ONDARROAKO UDALA

Ingurumen batzordeko akta

Noiz: 2012ko abenduak 10

Ordua: 18:00

Non: Ondarroako udaletxeko 2. solairua

Agertutakoak: Oier Espilla, Miren Lore Zabala, Ibai Muñiz, Joseba Zabaleta, Zatozteko hiru ordezkari, Mari Tere Kaltzakorta eta Zaldupe Eskolako beste kide bat

1 – Aurreko akta onartzen da

2 – Larruskaingo lurren hitzarmena

- Larruskaingo udalaren lurra Lurgaiak elkarteari 20 urtez lagatzeko hitzarmena onartzen da. Hitzarmen hori “lurraldearen kustodia” lez egingo da. Bertan, baso autoltonoa berreskuratuko da, herritarren laguntzarekin.
- Plenotik ere pasako da hitzarmena

3 – 2013ko aurrekontuak

- Proposamena aurkeztu da, puntuz puntu
- Zatozteko kideek aurrekontuetan sartzeko puntu batzuk proposatu dituzte:
 - Txakurren kaken arazoa konpontzeko zerbait
 - Aurretik ere landu dugun gaia da eta ez dauka irtenbide errazik
 - Normatiba bete behar da, baina zelan? Udaltzainik ez dagoen orduetan jende batek nahi duena egiten du.
 - Udalbarrietan egin dugu kanpaina. Baina kontzientzia daukanak jada jasotzen dituzte kakak, eta kontzientziarik ez daukanari berdin zaizkio kanpainak.
 - Gai zaila da, baina pauso batzuk ematen jarraitzea erabaki da:
 - Erroldatuta dauden txakur guztien zerrenda lortzea (nahiz eta txakur batzuk erroldatu gabe dauden)
 - Hurrengo aurrekontuan kontzientziazio kanpainak egiteko diru bat laga
 - Udalbarrietan kanpaina egiten jarraitu: kaleak denon etxea direla eta garbi mantendu behar direla
 - Txakurrentzako kaka egiteko toki gehiago egokitu behar dira
 - Kartelak ipintzeko lekuak egokitzea
 - Komunikazioko aurrekontutik diru bat laga da honetarako.



ONDARROAKO UDALA

4 – Berriatua-Ondarroa bidegorria

- Foru Aldundia proposamen bat lantzen dabil eta gure iritzia eskatu digute. Hauxe da batzordeko kideen balorazioa:
 - Bariantea zeharkatu behar izatea arriskutsua dela, eta ea zelan emango zaion irteera horri (zubi bat? Tunela?)
 - Allerira barik, bidegorria Kamiñazpira bideratzea egokiagoa izango litzateke, auzo honek ere bidegorria edukitzeko
 - Ibilbide guztia laua da, eta hori positiboa da
 - Poligonoekin lotuta egotea ere oso positiboa da

5 – Alleriko irteerak

- Zaldupekoentzat aberasgarriak izan dira. Zubi Zaharrekoek ere ondo baloratu dituzte. Txomin Agirrekoen irteeran eta herritarrekin egin genuenean arazo bat gertatu zen: lur batzuen lehengo jabeak agertu zirela, euren lurretatik ateratzeko esaten. Ertzainak ere bidali zituzten
 - Baina lur horiek Kostasek desjabetuta daude, eta gainera irteerak ibaira joateko pasoetatik egin ziren.
 - Lehengo lur jabearekin berba egin da, eta azaldu zaio lur horiek kostasenak direla
 - Irteera hauentzako eta Allerin egiten ari garen ikerketarentzako dirulaguntza bat lortu da Eusko Jaurlaritzatik, 3.500 eurokoa

6 – Padura eta erreka ondoetako basoak berreskuratzea

- Proiekturako dirulaguntza bat lortu dugu, Eusko Jaurlaritzaren eskutik hau ere. 7.500 euro
- Enpresa bat aurkeztu da leihaketara eta abenduaren 12an zabalduko dira sobreak
- Zaldupeko erreka ondoko basoan untzuorriak kenduko diren galdetu dute
- Proiektua ikusgai ipiniko da, herritarrek ezagutzeko

7 – Gabonetan (abenduak 18tik 28ra) erakusketa bat ekarriko dugu herrira: “Emakumeak eta elikadura burujabetza”

- Aldaketaren bideak dokumentala abenduaren 19an botako dugu, arratsaldeko 20.00etan. Nikaraguan emakumeek euren jabeakuntzaren bidez lurak zelan eskuratu dituzten erakusten du dokumentalak. Monokultiboen ordez soloak ipini dituzte eta euren familiaren elikadura hobetu, besteak beste.

8 – Zaldupe eskolakoek bi galdera egin dituzte

- Zergatik ez ziren Zaldupe futbol zelaiko lurak eskolara ailegatu?
 - Udaleko ordezkariak argitu dute teknikari eta futbol zelaiko obretako arduradun guztiak abisatuta zeudela eta hala ere lurrik ez zela ailegatu. Akatsa izan zela.
 - Orain lurak anexuko hondarrarekin daude nahastuta, eta ez dute balio
 - Lurrik ez zela eroan jakin zutenean, udaleko brigadakoak bidali zituzten, eta hauek Zaldupe eskolako lurra harrotu zuten.



ONDARROAKO UDALA

- Lehengo ur depositoko ura futbol zelairako erabiltzen zela, eta ea ur hori eskolara eroan ezin den galdetu dute.
- Udal teknikariek hodi bat sartu zuten futbol zelai berriaren inguruan, hortik ura eskolara bidaltzeko
- Baina azkenean hortik elektrizitatea sartu behar izan da, zelaiarentzako. Horrela gastuak murriztu dira (bestela transformadore bat egin behar zen)

9 – Hurrengo batzarra 18:30ean egingo dugu, Zaldupekoak ere ailegatzeko